

EUSKAL MEZA, 2020 ABENDUAK 25/DECEMBER 25, 2020
EGUBERRI EGUNA-JESUSEN JAIOTZA/
CHRISTMAS DAY-NATIVITY OF THE LORD JESUS (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

<p>1. Haur eder baten bila gabiltza zorutzen ta izarrak esan digu galdetzeko hemen. Jaungoikoaren herri maite, Jerusalem, esan zaiguzu laister Jesus non jaio den. (Bi)</p> <p>2. Artzai buru txuri bi, Anton eta Peru, Belengo estalpera etorri zaizkigu. Sartu dira barrena, Manueltxongana, eskeintza egin diote arkumetxo bana. (Bi)</p>	<p>1. Looking for a handsome child Like crazy we are going around And the star has told us To ask for him here. God's loving People, Jerusalem. Let us know quickly Where is Jesus born. (Bis)</p> <p>2. Two bold shepherds, Tony and Pete, To Bethlehem cave Have arrived. They came in, To see Emmanuel, And offer him Each a lamb. (Bis)</p>
--	---

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ⊙ Amen. AGURRA † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ⊙ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all. ⊙ And with your spirit.</p>
--	---

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezan. † Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters) let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p>
---	---

<p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatarietako dei egitera etorria: Kristo, erruki.</p> <p>⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otowitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</p> <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguelako Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.</p> <p>⊙ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.</p> <p>⊙ Amen.</p>
---	---

AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guzti alduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarri zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer.</p> <p>For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
--	---

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otowitz</p> <p>Jainko Jauna, gizona zure antzeko sortuz, mirariak egin dituzu, eta areago oraindik, Kristoren bidez, goi-mailara goratuz; egiguzu, gizatasunean gurekin bat egin den zure Semeak, bat egin gaitzala zurekin Jainkotasunean.</p> <p>Zurekin eta Espiritu Santuarekin errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>† Let us Pray</p> <p>O God, who wonderfully created the dignity of human nature and still more wonderfully restored it, grant, we pray, that we may share in the divinity of Christ, who humbled himself to share in our humanity.</p> <p>Who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever.</p> <p>⊙ Amen.</p>
--	---

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD

LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING

Isaias/ Is 52:7-10

Isaias Profetaren Liburutik

7 Bai ederra mendi gainetan albistaria etortzen ikustea! Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen, askapena aldarrikatzen. Sioni diotso: «Errege da zure Jainkoa!» 8 Zure begiraleak deiadarka! Poz-oihu dagite denek, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen. 9 Ekin denok poz-oihuka, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu, Jerusalem askatu. 10 Bere jainkozko indar paregabea azaldu du Jaunak nazio guztien aurrean. Mundu-bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren garaipena.

□ Jaunak esana!

☉ Eskerrak zuri Jauna!

From the Prophet Isaiah

How beautiful upon the mountains are the feet of him who brings glad tidings, announcing peace, bearing good news, announcing salvation, and saying to Zion, "Your God is King!" Hark! Your sentinels raise a cry, together they shout for joy, for they see directly, before their eyes, the LORD restoring Zion. Break out together in song, O ruins of Jerusalem! For the LORD comforts his people, he redeems Jerusalem. The LORD has bared his holy arm in the sight of all the nations; all the ends of the earth will behold the salvation of our God.

□ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 98:1, 2-3, 3-4, 5-6

R. Mundu-bazter guztiek ikusi dute gure Jainkoaren garaipena.

Kanta Jaunari kantu berria,
egintza harrigarriak egin baititu:
garaile egin du bere esku indartsu paregabeak.
Bere garaipena azaldu du Jaunak,

Bere salbamen-ekintza agertu nazioen aurrean.
Ez du ahaztu bere maitasuna,
Israel herriari dion leialtasuna. **R.**

Mundu-bazter guztiek ikusi dute gure
Jainkoaren garaipena.
Egin irrintzi Jaunari, lurtar guztiok,
egin poz-oihu eta kantu, jo soinua! **R.**

Ospatu Jauna zitaraz,
zitaraz eta kantu ederrez!
Turuta eta adar-hotsez,
egin irrintzi errege den Jaunari! **R.**

R. All the ends of the earth have seen the saving power of God.

Sing to the LORD a new song,
for he has done wondrous deeds;
his right hand has won victory for him,
his holy arm. **R.**

The LORD has made his salvation known:
in the sight of the nations he has revealed his justice.
He has remembered his kindness and his faithfulness
toward the house of Israel. **R.**

All the ends of the earth have seen
the salvation by our God.
Sing joyfully to the LORD, all you lands;
break into song; sing praise. **R.**

Sing praise to the LORD with the harp,
with the harp and melodious song.
With trumpets and the sound of the horn
sing joyfully before the King, the LORD. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

Hebrearrei/ Heb 1:1-6

Hebrearrei egindako Eskutitzetik

Senideok:

1 Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak gure arbasoei profeten bidez; **2** azken egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme horrexen esku utzi ditu gauza guztiak, egin ere berorren bidez egin baitzuen mundua. **3** Bera da Jainkoaren aintzaren distira eta beronen izatearen irudia, eta berak eusten die gauza guztiei bere hitz ahaltsuaz, eta, bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri da zeru goienetan. **4** Eta aingeruak baino gehiago izatera iritsi da, ondareztat jaso duen izena ere haiena baino askoz goragokoa denez gero. **5** Izan ere, Jainkoak ez dio sekula inongo aingeruri esan: *Nire semea zara zu, gaur zaitut nik sortu*; eta beste hau ere ez: *Aita izango nau hark ni, eta seme izango dut nik hura*. **6** Jainkoak bere lehen-semea munduan sarraraztean, berriz, honela esaten du: Adora dezatela bera Jainkoaren aingeru guztiek.

☐ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

From the Letter to the Hebrews

Brothers and sisters:

In times past, God spoke in partial and various ways to our ancestors through the prophets; in these last days, he has spoken to us through the Son, whom he made heir of all things and through whom he created the universe, who is the refulgence of his glory, the very imprint of his being, and who sustains all things by his mighty word. When he had accomplished purification from sins, he took his seat at the right hand of the Majesty on high, as far superior to the angels as the name he has inherited is more excellent than theirs. For to which of the angels did God ever say: You are my son; this day I have begotten you? Or again: I will be a father to him, and he shall be a son to me? And again, when he leads the firstborn into the world, he says: Let all the angels of God worship him.

☐ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia.

Egun santu bat agertu zaigu. Zatozte, herri guziak, Jauna gurtzera. Argi zoragarri bat bait da gaur agertu lurraren gainera.

R. Aleluia, aleluia.

R. Alleluia, alleluia.

A holy day has dawned upon us. Come, you nations, and adore the Lord. For today a great light has come upon the earth.

R. Alleluia, alleluia.

EBANJELIOA-GOSPEL

† **Jauna zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik**

☉ Aintza Zuri, Jauna.

† **Jaunak esana.**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you

☉ **And with your spirit**

† A Reading from the Holy Gospel according to **N**

☉ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Ebanjelioa San Joanen Liburutik/ Jn 1:1-18

1 Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. **2** Hasieran Jainkoarekin zegoen Hitza. **3** Gauza guztiak beronen bidez egin ziren, eta egindakotik ezer ez da berau gabe egin. **4** Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen; **5** argi horrek ilunpetan egiten du argi, baina ilunpeek ez zuten onartu. **6** Agertu zen gizon bat Jainkoak bidalia; Joan zuen izena. **7** Testigu izatera etorri zen, argiaz testigantza egitera, beraren mezuaren bidez sinets zezaten. **8** Ez zen hura argia, argiaren testigantza egin behar zuena baizik. **9** Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. **10** Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina izan arren, mundukoek ez zuten onartu. **11** Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. **12** Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. **13** Hauek ez dira giza odolekoak, ezta gizakiaren borondatez sortuak ere, Jainkoarengandik jaiokoak baizik. **14** Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen. Ikusi dugu haren Jainko-aintza, Aitarengandik maitasun eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. **15** Joanek beronetaz egin zuen testigantza, oiher eginez: «Honetaz ari nintzen ni, “Nire ondoren datorrena nire gainetik dago, ni baino lehenagokoa baitzen” esan nuenean». **16** Izan ere, guztiok hartu dugu haren betearen betetik, eta maitasuna maitasunaren gain hartu ere. **17** Legea Moisesen bidez eman zen; maitasuna eta egia, berriz, Jesus Mesiasen bidez. **18** Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri.

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna!

In the beginning was the Word, and the Word was with God, and the Word was God. He was in the beginning with God. All things came to be through him, and without him nothing came to be. What came to be through him was life, and this life was the light of the human race; the light shines in the darkness, and the darkness has not overcome it. A man named John was sent from God. He came for testimony, to testify to the light, so that all might believe through him. He was not the light, but came to testify to the light. The true light, which enlightens everyone, was coming into the world. He was in the world, and the world came to be through him, but the world did not know him. He came to what was his own, but his own people did not accept him. But to those who did accept him he gave power to become children of God, to those who believe in his name, who were born not by natural generation nor by human choice nor by a man's decision but of God. And the Word became flesh and made his dwelling among us, and we saw his glory, the glory as of the Father's only Son, full of grace and truth. John testified to him and cried out, saying, "This was he of whom I said, "The one who is coming after me ranks ahead of me because he existed before me." From his fullness we have all received, grace in place of grace, because while the law was given through Moses, grace and truth came through Jesus Christ. No one has ever seen God. The only Son, God, who is at the Father's side, has revealed him.

□ The Word of the Lord!

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ!**

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

† Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,

☉ Sinisten dut, Sinisten dut!

APOSTLES' CREED

† I believe in God, the Father almighty,

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ,

†☉zeru-lurren egilea. Sinesten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaiotzena; Pontzio Pilatoren menpean nekalduta; gurutzatuta, hila eta hobiratu izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarrikik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza.

☉ **Amen.**

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ **Amen.**

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: On this solemnity of the Birth of Jesus in Bethlehem and moved by the power of the Holy Spirit let us pray to God who is rich in mercy:

1. That God incarnated in a feeble and weak child may bring about unity and harmony among the many nations of the world, **we pray to the Lord.**
2. That the Church, incarnated as a humble and powerless institution may lead all the men and women of good to a more fraternal world, **we pray to the Lord.**
3. That our union with the child Jesus born in a manger may bring us into deeper union with those which the society tends to reject or ignore, **we pray to the Lord.**
4. That the poor, the sick, and all who suffer may be filled with joy and experience in them, the loving presence of God, **we pray to the Lord.**
5. We pray for all those who are sick, that they recover and re-gain their health. We pray also for all members who are working on the front line during this pandemic. Keep them and their families safe and healthy. **We pray to the Lord.**
6. We pray for everyone who has lost their job, who has died, or has been negatively affected by the pandemic in our world. **We pray to the Lord.**
7. For our departed brothers and sisters during the past year: May the merciful God, whom we recognize in Jesus born in Bethlehem, grant them eternal rest, and consolation to their families, **we pray to the Lord.**

+ Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to Your greatness. Take good care of us your children. We ask you through Christ our Lord.

R/. Amen.

**EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY
ESKAITZA ABESTIA/OFFERTORY SONG**

HATOR HATOR	Come, Come home
<p>Hator, hator mutil etxera gaztaina ximelak jatera, Gabon gaua ospatuzeko aitaren eta amaren ondoan. Ikusiko duk aita barrezka amaren poz ta atseginez. Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri. Gaztainak erre artean, gaztainak erre artean, txipli txapla, pum! Gabon gaua pozik igaro daigun.</p>	<p>Come, come, boy, home, Let's have together chestnuts, Let's spend Christmas Eve, By our father and mother. You will see father laughing And mother too full of joy. Turn and turn, boy That chestnuts roaster, As chestnuts are being roasted As chestnuts are being roasted Txipli thapla, pum! We may enjoy this Christmas night.</p>

OPARI ESKAITZA-OFFERTORY

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi. ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti. † Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari. ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti. † Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan. ☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life. ☉ Blessed be God for ever. † Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink. ☉ Blessed be God for ever. † Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father. ☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	--

OPARIGAIEN GAINKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Onartu, Jauna, Eguberri egun zoragarri honetan Zurekin pakeatzen gaituen opari hau, hauxe bait da, gu gizonok Zuri eskaini ahal dugun gorespen betea. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>† Make acceptable, O Lord, our oblation on this solemn day, when you manifested the reconciliation that makes us wholly pleasing in your sight and inaugurated for us the fullness of divine worship. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
--	--

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin ◎ Eta zure espirituarekin. † Gora bihotzak. ◎ Jaunagan dauzkagu. † Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. ◎ Egoki da eta zuzen. † Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Gizon egin den Hitzaren misterioan zure aintzaren argi berria sortu da gure bihotzetan. Eta orain, Jainkoa agirian ezagutzen dugularik, berak eramaten gaitu ikusi ezin diren gauzak maitatzera. Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin etengabe goratarre hau abesten dizugu:</p> <p>◎ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you. ◎ And with your spirit. † Lift up your hearts. ◎ We lift them up to the Lord. † Let us give thanks to the Lord our God. ◎ It is right and just. † It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God. For in the mystery of the Word made flesh a new light of your glory has shone upon the eyes of our mind, so that, as we recognize in him God made visible, we may be caught up through him in love of things invisible. And so, with Angels and Archangels, with Thrones and Dominions, and with all the hosts and Powers of heaven, we sing the hymn of your glory, as without end we acclaim:</p> <p>◎ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
---	---

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezten.</p> <p>† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p style="text-align: center;">HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT EMANGO DENA</p> <p>† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p style="text-align: center;">HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA</p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.</p> <p>† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying: TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT: FOR THIS IS MY BODY WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU.</p> <p>† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying: TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM IT: FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD,</p>
--	--

**DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratu, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanaz, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itzaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan**

☉ **Amen.**

**THE BLOOD OF THE NEW
AND ETERNAL COVENANT,
WHICH WILL BE POURED OUT
FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME.**

† **The mystery of faith:**

☉ We proclaim your Death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with blessed Joseph her spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ **Amen.**

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

<p>† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:</p> <p>†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.</p> <p>Emaiguzu gaur egun hontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>†Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaitzazu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitzen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>☉Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>† At the Savior’s command and formed by divine teaching, we dare to say:</p> <p>†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation, but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
---	--

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>†Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaitzazu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>☉Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Emaiozue bakea elkarri.</p> <p>☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaitzazu bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

Gabeko izar	Star of the Night
<p>Gabeko izar argitsuena, piztutzeakin batera, haurtxo eder bat etorri zaigu, gaur arratsean etxera. Ordu ezkeroz etxeko denak, poztu ta zorutzen gera, haurra dalako zerutik honuntz, datorren Jainko berbera.</p>	<p>At the same time the brightest star of the night arises, a cute child has come this evening to our house. Since then, all in the house, Are full of joy, Because this child is the very God Coming down from Heaven.</p>
<p>Alai ta pozik kanta dezagun, haurtxo honen etorrera, gure iluna alaitutzeko jaio dan argi ederra. Gaurtik aurrera atzerri hontan, zorionekuak gera, haurra dalako zerutik honuntz, datorren Jainko berbera.</p>	<p>Let us all joyfully sing The arrival of this child, He is the wonderful light To cheer up our darkness. From today on in this exile We are blessed, Because this child is the very God Coming down from Heaven.</p>

GAUEKO IZAR



JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Jainko guztiz errukitsua, munduaren Salbatzaileak, gaur gizon-bezala sortuz, gu Jainkoaren-Seme egin gaituen bezala, hilezko ere egin gaitzala Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. R/. Amen.</p>	<p>+ Grant, O merciful God, that, just as the Savior of the world, born this day, is the author of divine generation for us, so he may be the giver even of immortality. Who lives and reigns for ever and ever R/. Amen.</p>
--	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ⊙ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. ⊙ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ⊙ Amen. † Go forth, the Mass is ended. ⊙ Thanks be to God.</p>
--	---

AZKEN ABESTIA/FINAL SONG

Birjina Maite	Loving Virgin
<p>Birjina maite, lotan dago zure seme laztana, seaskatxo bat ipini zazu gure biotzen kutunai, ongi bai ongi igaro ditzan gabak eta egunak. Polliki polliki eragin zazu egin dezan lo ona."</p>	<p>Loving Virgin Your loving child is asleep Place in a cradle The loving one of our hearts, He may peacefully spend Nights and days. Softly, softly swing him So he may have a peaceful sleep.</p>

BIRJINA MAITE





HATOR, HATOR



Eguberri zoriontsua!
Merry Christmas!

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

Lehen irakurgaia

(Berri ona)

Izai profetaren liburutik 52,7-10

7 Bai ederrak direla mendi gainetan bakearen berria ekartzen duen mezulariaren oinak, berri ona eta salbamendua erranez dabilanaren oinak, Ziongo hiri sainduari erraiten diolarik: Errege da zure Jainkoa. **8** Entzun: zure zaintzaleak oihuka ari dira, irrintzinaka guziak batean, ikusten baitute Jauna berriz heldu dela Zionerat. **9** Egin bozkarioz oihu, Jerusalemeko harresi zahar eroriak, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta salbatu Jerusalemeko. **10** Jaunak, herrialde guzien aitzinean, erakutsi du bere besoaren indar gaitza. Eta lurraren bazter guziek ikusiko dute Jainkoarengatik salbamendua.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 97

Leloa: Lur guziak du ikusia salbamenduko iguzkia.

Kanta Jaunari kantu berri,
Harek eginak baitira oro miragarri.
Salbatzaile da jeiki Jauna:
Ikusi dute zoin ona dugun, zoin zuzena.

Izraelentzat zer laguna:
Erakutsi du bere betiko bihotz ona.
Lur guziak du ikusia
Gure Jaunaren salbamenduko iguzkia..

Kanta Jaunari lur guzia!
Pitz eta kanta, bai bozkaria, bai loria!
Egin Jaunari soinu, kantu!
Jo xirribika, jo salmo, ttuntun eta xistu!

Bigarren irakurgaia

(Semeak Aita agerrarazten)

Hebrearrei epixtolaren hastapena 1,1-6

1 Haurrideak, askotan eta asko moldez Jainkoa mintzatu zen lehen gure arbasoeri, profeten bidez. **2** Guri mintzatu zaiku, azkenak diren egun hautan, bere Semearen bidez. Hura ezarri baitu ooren premu, haren bidez egin baitu mundua. **3** Hura da Aitaren aintzaren dirdira, eta

haren izaiterearen irudia, eta guziak bere hitz boteretsuaz dakartzki. Seme hori, bekatuen garbiketa egin ondoan, jarri da Jainko guziz handiaren eskuinaldean zeru gorenetan; **4** aingeruak baino gorago ezarria da, ondareztat duen izena heiena baino askoz goragokoa baita. **5** Alabainan, aingeruetarik zeini dio Jainkoak sekulan erran: “ Nere semea zira zu, nik zaitut gaur sortu ” ? Eta oraino: “ Ni aita izanen nau, eta hura izanen dut seme.” **6** Bere lehen sortua munduan sarraraztean, aldiz, erraiten du : “ Adora dezatela hura Jainkoaren aingeru guziek !”

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Guri egungo egun sainduak, zer argia! Herriak etor, Jaunari eror belauniko, Egun, argi bat, zein handia, lurrera jautsi zaikulako!

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 1,1-18

1 Haste hastean bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. **2** Haste hastean Jainkoarekin zen. **3** Haren bidez eginak izan dira oro, eta egin denetik deus ez da hura gabe egin . **4** Haren baitan zen bizia, eta gizakien argia zen bizia. **5** Argiak ilunbetan argitzen du, eta ilunbeek ez dute onartu. **6** Agertu zen gizon bat Jainkoak igorria: izena zuen Joanes. **7** Lekuko izaitera etorria zen, argiaren lekuko izan zadin, haren bidez guziek sinets zezaten. **8** Bera ez zen argia, bainan argiaren lekuko izan behar zuena. **9** Hitza zen egiazko argia, mundurat etorritz gizaki guziak argitzen dituen. **10** Munduan zen, eta mundua haren bidez egin zen, bainan munduak ez du ezagutu. **11** Bereetarat etorri da, eta bereek ez dute onartu. **12** Bainan onartu duten guzietan, haren izenean sinesten duteneri eman diote Jainkoaren seme izaiteko ahala. **13** Hauek ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahitik, ez eta gizonaren nahitik, bainan bai Jainkoarengatik. **14** Eta Hitza haragi egin da, eta gure artean egin du bere egoitza. Ikusi dugu haren aintza, Aitarengatik, Seme bakar gisa, daukan aintza, Graziaz eta egiaz bete. **15** Joanesek lekukotasun egiten dio, goraki diola: “ Hau da nik erraiten nuena: Ene ondotik heldu dena aitzindu zait, ni baino lehen baitzen.” **16** Bai, haren betearen betetik denek ukan dugu, eta grazia graziaren gainean. **17** Legea Moisen bidez emana izan zaiku; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri zaizkigu. **18** Egundaino nehork ez du Jainkoa ikusi: Seme bakarrak, Aitaren altzoan denak, eman dauku haren berri.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.